

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 8koa. Onartzea ustiategietara heltzeko bide eta landa bideetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, aldatzea, eta Añanako bideak konpontzeko dirulaguntza sartzeko Foru Sektorre Publikoaren dirulaguntzen 2017-2019 aldirako plan estrategikoan, zeina abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiaren bidez onartu baitzen, 3.2 ardatzeko ("Lehen Sektorrea") 3.2.3 helburuan ("Nekazaritza azpiegiturak hobetzea")**

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuak ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako (zeina jasota baitago M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan), Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan, onartutako laguntzen oinarri arauak egokitzea, eta eguneratzea dituen lege erreferentziak indarrean dagoenari, bai eta onestea ere laguntza lerro horretako 2018ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuz, onetsi ziren nekazaritzako ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako (zeina jasota baitago M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan) laguntzen oinarri arauak, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan.

Foru dekretu horretan aipatzen dira azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearena; eta otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen eta transferentziena; eta beharrezko egiten da eguneratzea indargabetuta geratu baitira urriaren 1eko 39/2015 Legearekin, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarekin -2016ko urriaren 2tik indarrean-, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauarekin, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenarekin -2016ko urriaren 29tik indarrean-.

Halaber, oinarri arautzaileen 3. artikuluan jasotako inbertsioak eta jarduerak egiten dituzten landa bideen toki erakunde eta udal titularrak laguntza horien onuradun direnez, Sektorre Publikoko Kontratuen legea bete behar dute obra eta zerbitzuak kontratatzean; hortaz, beharrezko egiten da abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuak kontratu publikoak arautzen dituen legeari egiten dizkion aipamenak eguneratzea azaroaren 8ko 9/2017 Lege berriari, Sektorre Publikoko Kontratuenari, indarrean baitago 2018ko martxoaren 9tik. Modu berean, inbertsioaren gehieneko zenbateko onargarria ere eguneratu beharra dago, doitzeko lege horrek kontratu txikiaren prozeduraz kontratatzeko finkatzen duen mugara eta zehazteko entitate onuradunak horrelako kontratuetan zein dokumentazio aurkeztu behar duen emandako dirulaguntza jaso ahal izateko.

Beste alde batetik, dagoen kredituaren mugak direla eta, hark ahalik eta zona gehienak har ditzan banatzeko asmoarekin, beharrezko egiten da bideetan muga bat jartzea dirulaguntza eskaeran, hain zuzen, gehienez bi bide entitate eskatzaile bakoitzeko.

Aldundiak 2018rako duen gastuen aurrekontua, ordea, hiru partida daude dirulaguntza horien deialdia egiteko ekitaldi horretan: bata, 450.000,00 eurokoa, nekazaritzako azpiegiturak hobetzeko, deialdi orokorrean; beste bat, 50.000,00 eurokoa, Arabako Errioxako bideak konpontzeko deialdi zehatzerako; eta hirugarrena, 150.000,00 eurokoa, Añanako bideak konpontzeko deialdi zehatzerako.

Kontuan hartuta eta balioetsita Arabako Errioxako eta Añanako hainbat elementu sozial, ekonomiko eta, batez ere, bideen egungo egoera, lehentasuna ematen zaio jarduteko, alde batetik, Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillako administrazio batzarren bideetan eta, bestetik, Añanako Kuadrillako administrazio batzarren eta udalen bideetan, eta horretarako aurrerago aipatutako bi partida zehatzak gorde dira administrazio batzar eta udal horietarako, oinarri arautzaileetan finkatutako lehentasun irizpideak aplikatuz eta eskatutako inbertsioei laguntza ordenan emanez puntuazio gehien lortu duenetik gutxiena lortu duenera; hala ere, kreditu falta dela eta erantzuten ez diren inbertsioak partida orokorrean sartu ahalko dira deialdian aurkeztutako gainerako eskaerekin batera, eta haiekin batera ebatziko dira.

Añanako bideak konpontzeko den dirulaguntza ez dago sartuta Foru Sektore Publikoaren 2017-2019 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan –Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiz onartu eta Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiz aldatua–; hortaz, plan estrategiko horren barruan sartzen da.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuz onartu ziren nekazaritzako ustategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako (zeina jasota baitago M04 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan) laguntzen oinarri arauen aldatzea hauei:

1.1. Diruz lagun daitezkeen gastuak ezartzen dituen 5.1. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

5.1.4 Diruz lagun daitezkeen gehieneko inbertsioa 45.000,00 eurokoa izan beharko da (BEZa barne) dirulaguntza eskatzen duen erakunde bakoitzeko.

1.2 Kostuak merkatzea arautzen duen 6. artikulua aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

Aurrekontuko kostuak zenbat merkatzen diren ikusteko eta merkatuko prezioetara egokitzeko, proiektuek kontrataziorako prozedurak pasatu beharko dituzte, azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera dagozkienak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. Kontratu txikiak badira, normalean 3 aurrekontu aurkezteko eskatzen da eta erakunde onuradunak baloratu eta onartu beharko ditu, egoki den esleipen proposamena egiteko.

1.3 Obren kontratazioa arautzen duen 7. artikuluko 1. idatz zatia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

7. artikulua. Obren kontratazioa.

7.1 Bideen tituludunak diren erakunde onuradunek azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuenean, xedatutakoaren arabera kontratatuko dituzte obrak edo zerbitzuak. Horretarako, Nekazaritza Sailak behar bezala aholkatuko ditu eta esleitu aurretik, lizitazioaren espediente osoaren kopia bidali beharko zaio, Aldizkari Ofizialetan eta Kontratazailearen Profileen argitaratutako iragarkiak barne, kontratu txikia ez bada behintzat. Kontratu txikien kasuan (40.000,00 euro baino gutxiagokoak obra kontratuetan eta 15.000,00 euro baino gutxiagokoak gainerako kontratuetan, BEZa aparte), nahikoa izango da jakinaraztea lehen egiaztagiria eman baino lehenago prozedurari jarraitu zaiola eta hiru eskaintza erantsi gutxienez, ezintasuna justifikatu ezean.

1.4 Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua arautzen dituen 10. artikuluko 7. idatz zatia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

10.7 Eskaeraetan akatsak badaude edo osorik ez badaude, instrukzio organoak haiek konpontzeko eskatuko die erakunde interesdunei. 10 laneguneko epea izango dute horretarako, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotakoan akatsak zuzendu ez badira, eskaerari uko egin zaiola ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

1.5 Izapidetzea arautzen duen 11. artikuluko 2. idatz zatia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

11.2 Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

1.6 Ebazpena eta jakinarazpena arautzen dituen 12. artikuluko 2. idatz zatia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

12.2 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota, berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi dela esan nahiko du, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikokoaren dirulaguntzenak, 23.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1.7 Laguntzen ordainketa arautzen duen 13.1 artikuluko 4. gidoia aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

13.1 Erakunde onuradunei diruz lagundutako inbertsioak edo jarduketak gauzatu ondoren eta honako agiriak aurkeztu ondoren ordainduko zaizkie dirulaguntzak:

– Egindako obraren ziurtapena, obrak kontratatu zituen organoak onartutakoa eta obraren zuzendaritzak emandakoa; kontratu txikien kasuan, nahikoa izango da onartutako fakturan jasotzea benetan egindako unitateen zerrenda balioetsia.

Ziurtapen partzialak aurkeztuz gero ere ordainketak egin ahalko dira. Edozein kasutan ere, onuradunak diruz lagundutako obra bukatu beharko du. Ordainketa partzial horiek egiteko, burututako obraren bolumena egiaztatzen duen ziurtapen teknikoak egon beharko da, obra bolumen horri dagokion faktura aurkeztu beharko da eta ondorengo puntuetan adierazi bezala ordaindu dela egiaztatu beharko da, kobrantzaren gaineko eskubidea hirugarren bati laga ez bazaio behintzat. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango ordainketa egiaztatzea.

1.8 Ez betetzeak arautzen dituen 15. artikuluko 1. eta 7. idatz zatiak aldatzea. Honela geratzen dira idatzita:

15.1 Erakunde onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interes dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

15.7 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

1.9 Araubide juridikoa arautzen duen 16. artikulua aldatzea. Honela geratzen da idatzita:

16. Araubide juridikoa.

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak arau hauen pean geratzen dira: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra, eta hura aplikatzeko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartua; eta europar araudian, estatuko araudian eta autonomia erkidegoko araudian aplikatzekoak diren gainerako xedapenak; gainera, Ogasun,

Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatutako informazio guztia eman beharko du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo ordaintzaileak nahiz Herri Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek foru arau horren 8 i) artikuluan xedatutakoaren arabera eskatzen diotena ere.

Bigarrena. Onartzea, 2018. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

– Dirulaguntza zein inbertsionarako deitu den: deialdi hau jada eginda dauden eta Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inkribatuta dauden ustiategietarako bideetarako eta landa bideetarako dirulaguntzetarako da, ondorengoetara bideratuta daudenak:

– Egokitzea, hau da, bidearen egiturak eta bere elementu lagungarriek jasandako kalteak konpontzea.

– Hobetzea eta berritzea, hau da, bidea maiz erabiltzearen ondorioz gastatutako zorua berritzea eta hobetzea ere bai zolu asfaltikoa jarriz.

– Eskabideak non eta zein epetan aurkeztu behar diren: Arabako Foru Aldundiaren erregistro nagusian, hargatik eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa; eskabideak aurkezteko epea hogeit egun naturalekoa izango da, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Dirulaguntza eskatzen duten erakundeek eskaera bakarra aurkeztu beharko dute. Eskaera horretan egin beharreko obra eta jarduketa guztiak agertu beharko dira, eta baita horiek egingo diren bideak ere. Gehienez, entitate bakoitzak bi bide jarri ahalko ditu.

– Kreditua erreserbatzea: Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastuen aurrekontuen partiden kontura; hona hemen zeintzuk diren partida horiek eta zer zenbateko erreserbatzen diren:

– 50.000,00 euro, "Arabako Errioxako bideak konpontzeko deialdia" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.02 partidaren kontura, Guardia – Arabako Errioxako Kuadrillako administrazio batzarrentzat (eranskinean jasotzen dira).

– 150.000,00 euro, "Añanako bideak konpontzeko deialdia" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.04 partidaren kontura, Añanako Kuadrillako administrazio batzar eta udalentsat (eranskinean jasotzen dira).

– 450.000,00 euro, "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.01 partidaren kontura.

Hirugarrena. Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, ezeren aurretik aztertu eta ebatziko dira, bakoitza bere aldetik eta lehenago adierazitakoaren arabera, "Arabako Errioxako bideak konpontzeko deialdia" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.02 partidaren konturako laguntzak eta "Añanako bideak konpontzeko deialdia" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.04 partidaren konturakoa, harik eta horien kredituak bukatu arte; laguntzak emango dira oinarri arautzaileetan finkatutako hautapen irizpideen arabera, hau da, puntuazio handiena daukanetik puntuazio txikiena duenera, ordena horretan.

Partida horietan kreditua falta dela eta, geratzen badira eskaerak erantzun gabe, gainerako eskaerekin ebatziko dira, "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea" izeneko 40.1.01.46.01.762.90.01 partidaren kontura.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Laugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdiak ebazten dituen ebazpenaren kontra aurkezten diren errekurtsioak ebazteko.

Bosgarrena. Añanako bideak konpontzeko den dirulaguntza sartzea Foru Sektorre Publikoaren 2017-2019 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan –Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiz onartu eta Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiz aldatua–, “Sektore primarioa” izeneko 3.2 ardatzeko “Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea” 3.2.3 helburu estrategikoaren barruan.

Seigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2018ko maiatzaren 8a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**

**ERANSKINA**

Laguntza eska dezaketen Guardia–Arabako Errioxako Kuadrillako administrazio batzarrak eta Añanako Kuadrillako administrazio batzarrak eta udalak:

**A. GUARDIA–ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA**

<b>ADMINISTRAZIO BATZARRAK</b>
Gatzaga Buradon
Páganos
Gorrebusto
Labraza

**B. AÑANAKO KUADRILLA**

<b>UDALAK</b>
Añana
Armiñón
Berantevilla
Iruña Oka
Kuartango
Lantarón
Erriberagoitia
Erriberabeitia
Gaubea
Zanbrana
<b>ADMINISTRAZIO BATZARRAK</b>
Añana
Atiega
Armiñón
Armiñón
Estavillo
Berantevilla
Berantevilla
Lacervilla
Mijancas
Santa Cruz del Fierro
Santurde
Tobera
Iruña Oka
Mandaita
Langraiz Oka
Olabarri
Tresponde
Billoda

UDALAK
Kuartango
Anda
Aprikano
Etxabarri Kuartango
Jokano
Luna
Marinda
Sendadiano
Urbina Eza
Uribarri Kuartango
Zuhatzu Kuartango
Lantarón
Alcedo
Bergonda
Caicedo Yuso
Komunioi
Fontecha
Leziñana
Molinilla
Larrazubi
Salcedo
Sobrón
Turiso
Zubillaga
Erriberagoitia
Antezana
Anuntzeta
Arreo
Artatza-Axkoeta
Barrón
Basquiñuelas
Caicedo Sopeña
Hereña
Lasierra
Leciñana de la Oca
Morillas
Ormijana
Padul
Pobes
Subilla Morillas
Tuyo

UDALAK
Villabazana
Villaluenga
Villambrosa
Biloria
Erriberabeitia
Igaegi
Manzanos
Melleles
Quintanilla de la Ribera
Rivabellosa
Rivaguda
Gaubea
Acebedo
Bachicabo
Barrio
Basabe
Bóveda
Karanka-Mioma
Corro
Espejo
Fresneda
Ginea
Gurendes-Quejo
Karkamu
Nograro
Osma
Pinedo
Quintanilla
Tobillas
Tuesta
Valderejo
Valluerca
Villamaderne
Villanañe
Uribarri Gaubea
Zanbrana
Bergantzu
Ozio
Zabalate
Zanbrana